Xabier Kintana, Euskaltzaindiaren kide bilbotarra

“Euskararen etorkizuna Bilbon jokatzen da”

Gaizka Eguskiza

EUSKARAREN ikertzaile jantzi dugu Xabier Kintana (Bilbo, 1946), 14 urterekin hizkuntza ikasten hasi zenetik. Izan ere, euskaltzain honek hainbat artikulo idatzi eta 1970an Gabriel Arestirekin batera Euskal Hiztegi Modernoa eman zuen argitara. Gainera, Charles Darwinen *Espezieen jatorria* edota Miguel de Unamunoren *Bizitzaren sentimendu tragikoaz* itzultzen lagundu du, besteak beste. Bilbon abenduaren 2an ospatu zen Euskararen Eguna dela eta, bere egungo egoerari buruzko hausnarketa batzuk jakinarazten dizkigu.

–Nola definitu zenuke euskararen egoera Bilbon?

–Azken bolada honetan pozgarria da euskarak izandako izugarrizko aurrerakada. Hala ere, faltan aurkitzen ditut letrero elebidun ez ofizialak, hau da, merkatari pribatuenak edota jatetxeetako kartak, esaterako. Hori argi eta garbi diskriminazio nabarmena da euskaldunontzat.

–Eta beste euskal hiriguneekin konparatuta? Bilbok duen garrantzia gaitzesten al da?

–Lehen ere Donostian hemen baino gehiago hitz egiten zen, baina ez bertakoek gehiago zekitelako, baizik eta inguruko herriak euskaldunak zirelako. Dena den, euskararen etorkizuna Bilbon jokatzen da. Euskal Herriko hiriburua ez bada ere, jendetsuena da eta hemen borroka irabazten duen neurrian euskalduntzeko bidea zabalduko da. Hemen bultzatu beharko lirateke aldizkariak, argitaletxeak... Bestalde, Bilbon egiten den euskara ez da aukeratu eredu moduan, baina bizkaiera ia 300.000 pertsonak egiten duten dialektoa da, ez Nafarroako lauzpabost herrixkatan egiten dena. Batzuek nahiko lukete bizkaiera berpiztu euskararekin zerikusirik ez daukan hizkuntza paralelo bat balitz bezala; beste batzuek euskara batua egiten dute Bizkaia kontuan hartu gabe. Biak astekeriak dira. Euskaltzaindian konturatu gara euskalkiek badutela zeresana hizkuntza aberasteko. Bilbotik bultzatu beharko genuke Bizkaiko usaineko euskara batua.

Euskaltzainak “elebitasuna” aldarrikatzen du. M. Esquibelen argazkiak

> “Euskalkiak aberasgarriak direnez, Bilbotik Bizkaiko usaineko euskara batua bultzatu beharko genuke”

–Nola ikusten duzu etorkizuna?

–Bi gauza behar dira: batetik, aldeko legedia. Izan ere, ez dago parekotasunik bi hizkuntz ofizialen artean. Badirudi euskaldun batti erdara jakitea eskatzea normala dela baina ez alderantziz. Hortik aparte, faltan ikusten dut batzuek aitortzen duten abertzaletasuna ez datorrela bat beren eguneroko praktikarekin. Legeak ez gaitu behartzen baina geuk benetan diogun bezain euskaldunak bagara behartu beharko genuke geure burua euskareriko kompromisoa hartzera. Gure belaunaldiko askok egin genuen. Legea baino, jendearen gogoa da inportanteena.

–Erantzunkizuna beraz, jendearena da, erakundeena baino...

–Konpartitua da. Agintariek ez dute behar den moduan landu elebitasunaren kontzientzia zibikoa. Nire ustez, merkatariek garrantzi handia daukate honetan. Sabino Aranak berak ere esan zuen: “Egizue euskara beharrezko kalerako eta gora egingo du”. Alderdi abertzaleek ez dute eskatzen ideologia horrekin kontzekuente izateko behar den eguneroko konpromiso txiki hori. Umeen zein kaleen izenak euskaldunak dira, baina dendenak, aldiz, gazteleraz idazten dira.

–Galizian eta Kataluñan bertako hizkuntzez egiten dira; Euskal Herrian, aldiz, ez hainbeste. Zergatik?

–Egun esaten da euskara oso zaila dela, baina nik esango nuke batez ere beren alferkeriagatik euskara ikasteko ahaleginik egin ez duten abertzaleek asmaturiko mito bat dela. Hitzkuntzak berez ez dira errazak edo zailak beren baitan, zerekin konparatzen duzun baizik. Erdaldunek hala esaten badute, honek esan nahi du euskaldunentzat erdara ere zaila dela. Lehenengo euskaldun berriak XVII. mendean ezagutzen ditugu eta batek ere ez zuen esaten euskara zaila zenik. Ikasi egin gabe gaztelania dakien batek errezago uler dezake katalanera, baina mintzatzen ikasteko ikasi behar da. Kontua da, Kataluñan burgesia kaletarrak atzikimendu nabarmena erakutsi ziola hizkuntzari, baina Euskal Herrian, berriz, ez zen nabari. Praktika dezagun elebitasuna, ez elebakartasuna, oso didaktikoa izango litzatekeelako.

Hileroko inkesta: Zer deritzozu Bilbon dagoen euskara mailari?



Ignacio
(Ingurugiro teknikoa)

MUSKIZKOA naiz eta nik uste dut Bilbo eta nire herria bezalakoak direla euskara mailan. Argi dago bietan betidanik euskaldunak izan diren herrietan baino gutxiago hitz egiten dela. Bilbo hiri bat dela kontuan hartu behar dugu. Honek esan nahi du aniztasun handiago dagoela eta hortaz, zailagoa da euskal hizkuntzaren zabalera. Hala ere, azken bolada honetan gorakada izugarria izan du euskararen erabilerak Euskal Herri osoan.

Javier
(Albaitaria)

BESTE herriei begiratzen badiegu, ez dut uste Bilbon dagoen euskara maila oso altua denik. Euskal Herri osotik egiten dut lan eta herriekin parakaturik alde izugarri bat dago; baita Donostian ere. Han ikusten da Bilbon baino gehiago hitz egiten dela. Dena dela, azken urteotan behintztat euskal hizkuntzaren erabilerak ez du behera egiten, gora egin baizik. Hobetzeko lekua badago oraindik eta bide horretan gaude.

Jesús
(Autonomoa)



NIK ez dakit Bilbo hiri euskaldun bat den ala ez. Hala ere, argi daukat azken 20 urteotan asko eta asko zabaldu egin dela euskararen erabilera eta beraz, gehiago entzuten da kalean. Gaztetan euskaraz entzuten zenean, burua atzera botatzeko modukoa zen eta honek esan nahi zuen euskalduna Ondarrukoa edota Bermeokoa zela. Oraingo erabilera handiagoa izatea gustatuko litzaidake baina hori denborak eta norberaren nahiak emango du.

Olatz
(Euskara irakaslea)

GERO eta gehiago hitz egiten da. Jendea saiatzen ari da ikasten eta orduan alde horretatik nik uste dut nahiko bultzatzen ari dela, baina beste aldetik, oraindik oso gutxik hitz egiten dute euskaraz eta nire ustez hori penagarria da. Beste herriekin konparatzen badugu, ni Gipuzkoan eta Nafarroan ibili naiz eta nire ingurukoak behintzat euskaldunak ziren. Bilbori dagokionez, Somera kalean, esaterako, entzuten da.

Udalak, “negar eginda”

G. E.

BILBOKO bizilagunen %15 –53.051, hain zuzen– euskalduna da eta ia %26 –91.000 pertsona inguru– izateko bidean dago. Datu hauek jakinarazi ziren Euskararen Egun dela eta, Bilboko Udalak abenduaren 2an ospatu zuen omenaldian. Arabiar Aretoan jazotako ekitaldi berberan euskara arloan egingo diren ekintzak identifikatzeko marka bat aurkeztu zen, malko gorri bat, alegia. Gurutzatzen duen arku zuriak batasuna eta komunikazioa adierazi nahi ditu.

Zentzu honen alde agertu ziren Iñaki Azkuna Alkatea eta alderdi guztietako –PSOE izan ezik– zinegotzi batzuk.

Azkunaren esanetan, euskara “herritar guztien bilgunea da”. “Ondare hori, ahalik eta baldintzarik onenetan hurrengo belaunaldietakoei transmititzea” denoi dagokigula gaineratu zuen Alkateak. Bilbotar batzuek izan duten garrantzia ere ekarri zuen gogora. “Rafael Mikoletak lehendabiziko euskal gramatika idatzi zuen XVII. mendean eta Blas de Oterok batuaren aldeko apostua egin zuen; beste aldetik, Euskaltzaindia hemen sortu zen, Resurrección María de Azkue presidentea izanik”.

Euskararen Eguna ospatzean, euskal hizkuntzaren erabilera gizarte–alor guztietan sustatu nahi dute Bilboko agintariek. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatu zituzten lehenengo hilabetean. Adibidez, abenduaren 3an *Bilbao Euskaraz* ikurraz dekoraturiko autobus batek hiri osoa zeharkatu zuen, informazioa zein opariak eskaintzeko asmoz. Ibilgailu bera Santo Tomas Egunean ere irten zen.

Honekin batera, publizitate arrunta erabili zuen Udalak euskararen aldeko konpromisoaren berri emateko. Halaber, iragarkiak prentsan nahiz irratietan eta kartel handiak udal–euskarrietan jarri zituen. Gainera, Olentzero Egunean *Bilbao Euskaraz* ikurra duten gozokiak banatu ziren eta Gabonetako Haur Parkean ere agertu zen malko gorria.